

59E/2026 EBAZPENA, abuztuaren 11koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak 2026” deialdiaren lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA:	Espedientearen kodea: 0011-1407-2026-000000
UNIDADE KUDEATZAILEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tfnoa.: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA	
Espediente mota:	Euskararen erabilera sustatzeko edo euskararen presentzia soziala sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdia.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariak otsailaren 3an emandako 4E/2026 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia eta haren oinarriak.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak ekainaren 12an emandako 29E/2026 ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Bestalde, deialdia arautzen zuen otsailaren 3an emandako 4E/2026 Foru Aginduaren oinarrietan ezarria dagoen bezala, dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Gainera, ekainaren 12ko 29E/2026 ebazpenean adierazi zen lehenengo ordainketa partziala jasotzeko, borondatezkoa eta dirulaguntzaren % 50era artekoa, elkarte onuradunek aurkeztu behar zutela beharrezkoa den dokumentazioa, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 30 egun naturaleko epean.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du diruz lagundutako jarduerak bete direla, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla, bai eta aurkeztutako agiriak baliagarriak direla ere.

Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak aurkeztu dituzten 10 elkarteetara lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan, lehen ordainketaren barnean, ageri diren zenbatekoak ordaintzea:

Esp. zkia	IFZ	Izena	Aurrekontu partida	Zenbatekoa
0011-1407-2026-000007	G71280325	IDAZLEEKIN SOLASEAN ELKARTEA	B30002 B3200 4819 334100	1.361,03 €
0011-1407-2026-000014	G31480783	ASOCIACION CULTURAL EUSKALDUN AXULAR DE BURLADA - AXULAR KULTUR ELKARTEA	B30002 B3200 4819 334100	3.272,95 €
0011-1407-2026-000016	G31458359	LAUBIDE KULTUR TALDEA	B30002 B3200 4819 334100	1.018,64 €
0011-1407-2026-000027	G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA	B30002 B3200 4819 334100	71.540,41 €
0011-1407-2026-000029	G31442601	SOCIEDAD CULTURAL DEPORTIVA SAIGOLA	B30002 B3200 4819 334100	1.351,69 €
0011-1407-2026-000035	G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	B30002 B3200 4819 334100	3.262,28 €
0011-1407-2026-000036	G71538391	IRAULI ELKARTEA	B30002 B3200 4819 334100	5.047,69 €
0011-1407-2026-000038	G71472252	HAIZEGOA EUSKARA TALDEA	B30002 B3200 4819 334100	2.560,03 €
0011-1407-2026-000041	G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	B30002 B3200 4819 334100	41.910,00 €
0011-1407-2026-000045	G31830847	APYMA LOKIZ GURASO ELKARTEA	B30002 B3200 4819 334100	224,40 €

2. Andosilla Herriko Gazteak elkarteak ere lehenengo ordainketari dagokion justifikazioa aurkeztu zuen. Hala ere, aurkeztutako jarduerak ez dira lehenengo ordainketaren epeetan sartzen, hau da, jarduera horiek ez ziren 2025ko urriaren 1etik 2026ko martxoaren 31 bitarte egin (deialdiko 13.1 oinarria). Fundazioak justifikatutako jarduera guztiak martxoaren 31tik aurrera egin direnez, bigarren justifikazio-epean aztertuko dira.

3. Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerrendako eskatzaile bakoitzari.

4. Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailatza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administrazioaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 11n.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urriaga |